



Anna Van der Breggenek irabazi du Durango-Durango klasikoa

Txirrindularitza • Herbeheretarra zen favoritoa, eta, aurreikuspen guztiak beteta, bera izan da Durango-Durango klasikoan irabazlea. Van der Breggen eta SD Worx taldeko gainerako kideak Garain egon dira aterpetuta egunotan • **5**

Mañarian askotariko produktuen azoka egingo dute domekan

Mañaria • Goizetik eguerdira, herriko eta inguruko ekoizleen 14 postu ipiniko dituzte. • **8**



Sai zuria arriskuan

Urkiolako Parke Naturaleko lau sai zuri bikoteek geroago eta zailtasun gehiago dituzte kumeak hazteko. Mendi bideetatik kanpora dabilen jendeak sai zuria ikaritzen du, eta hegaztiak habiatik irten eta han uzten ditu arrautzak, behar duten berotasuna eman barik. Arrautza horiek galdu egiten dira sarritan. • **2-3**

I. ZUBEROGITIA / E.M. ICARUS

Greba egun gehiago akordiorik lortu ezean

Abadiño • Rothenberger enpresako beharginak mobilizazioak egiten ari dira egunotan, patronalari lan hitzarmena berri dezan eskatzeko. Greba egun bi egin dituzte gaur arte, eta gehiago etorriko direla iragarri dute enpresak hitzarmena lortzeko "aurrerapausorik" ematen ez badu. Sindikatuak eta patronala atzo batu ziren negoziazio mahaian. Edizio hau ixterako, ez zuten akordiorik lortu. ELAko Aitor Taranco ordezkariak dio "lan mugimendu handia" dutela tailerlean, eta patronala negoziatzea "blokeatzen" ari dela, "pandemiaren aitzakiapen". • **12**



Protestak Beltranen bilaketa lanak eten ostean



Zaldibar auzia • Joan zen astean, Joaquín Beltran bilatzeari utzi zioten Zaldibarko hondakindegian. Hainbat eragilek "erantzukizunak argitzeko" eskaria egin dute. Eta protestak ere egin dituzte. Esaterako, Zaldibar Argitu plataformak deituta, manifestazioa egin zuten Zaldibarren. • **10**



Sai zuria Astxikitik ateratako argazkian; atzealdean Abadiñoko Mendiola auzoko frontoia eta elkartearen egoitza ikusten dira. [JUANKARANDRES.BLOSPOT.COM](https://www.blospot.com)

Sai zuria Urkiolako parkean, irauteko geroago eta zailtasun gehiago duen bizilagun sentibera

Urkiolako Parke Naturalean gizakiak egiten dituen jarduerak hegazti espezie honen biziraupena arriskuan ipini dute

NATURA • JOSEBA DERTEANO

Urkiolako Parke Naturala fauna aberats baten bizilekua da. Hantxe bizi dira lau sai zuri bikote, bere auzotar denekin batera. Zortzi sai zuri baino ez daude parkeko 5.958 hektareetan. Bizimodu gaxera ohituta daude, baina azken urteetan oraindino gehiago konplikatuta zaie biziraupena. Ez bizimodu basatiak berez dakartzan zailtasunengaitik, gizakien esku-hartzeagaitik baino: jende gehiegi dabil behar ez den tokietatik. Biologian doktorea den Iñigo Zuberogoiak urte asko daramatza espezie bitxi honen jarraipena egiten Icarus Ingurugiro Ikerketa enpresaren bitartez; sarritan, azterketak egiten ditu erakundeentzat. Egoeraren larritasuna azaleratzen duen hainbat ikerketa argitaratu du aldizkari espezializatuetan eta "oso kezkatuta" dagoela dio.

Anboto, Mugarra, Atxarte eta Ipizte. Nor bere habian, lau zonalde horietako haitzetan bizi dira sai zuri bikoteak. Euren kokaleku

zehatzak sekretua dira eta adituek urrunetik egiten dute animalia horien jarraipena. Zergaitik? "Oso animalia sentikorra delako", dio Zuberogoiak. Bere izakerearen ezaugarri hau funtsezkoa da gertatzen dabilena ulertzeko. Inguruan pertsonaren bat dabilela sentitzen badu, habiatik irten egiten du. Hegoak zabaldu eta badoa. Eta, mesfidati, ez da bueltatuko inguruan inor ez dagoela seguru egon arte. Honako hau da habiatik

Sai zuria animalia "sentikorra" da eta habiatik irten egiten du inguruan norbait sentituz gero

alde egitearen ondorioa: habiako arrautzak beharrezko zaintzarik barik uzten dituzte. Arrautzek berotasuna behar dute behar den moduan garatzeko eta saiak eurak dira, euren gorputzagaz, berotasun hori emateko ardura dutenak.

Hori barik arrautzak galdu egiten dira. "Arrautza bost-sei ordutan berotasunik barik uztea nahikoa da galtzeko", zehaztu du Zuberogoiak.

Arrautzak galdua

Honako hauek dira datuak: Mugarrako eta Atxarteko bikoteek galdu egin dituzte arrautzak aurretik. Urtean behin baino ez dituzte ipintzen —bat edo bi, normalean—, beraz aurretik ez dute kumerik haziko. Atxartekoaren kasuan egoera oraindino kezkarriagoa da: azken hiru urteetan ez dute arrautzarik aurrera ateratzerik lortu. Baina arazoa ez da oraingoa eta urte askoan ikusi den joera bat dela dio Zuberogoiak. Datu honek ondo islatzen du hori: Anbotoko bikoteak hiru kume baino ez ditu hazi XXI. mendean hasi zenetik hona. Sai zuriak urte asko hartzen ditu, 25 bat, baina, hala ere, ez da batez besteko datu ona desagertzeko arriskua duen animalia lez katalogatuta dagoen espezie batentzat.

Jendea "zirrikitu guztietatik"

Gizakiak eragin "zuzena" du sai zuriaren ugalketaren desorekan. Inguruotan, betidanik egon da mendirako joera eta pandemiak eragindako konfinamenduaren ostean "areagotu" egin da joera hori. Kontua da jendea mendi bideetatik kanpora dabilela, sai zuriaren bizitoki eremura gerturatzeko dela eta orduan eragiten zaiola kaltea. "Arazoa ez da jendea mendian ibiltzea. Mendi

Mugarrako bikoteak galdu egin ditu arrautzak aurretik; Atxartekoak ez du kumerik hazi hiru urtean

bide askotatik ibili daiteke. Arazoa sortzen da jendea edonondik dabilenean eta horixe dabil gertatzen. Jendea mendi bideetatik irteten da eta zirrikitu guztietatik dabil", argitu du Zuberogoiak. "Gainera, teknologia berrien laguntzagaz bide berri horiek azkar hedatzen

Datuak

Espezie honi buruzko zenbait datu, sai zuria hobeto ezagutzeko:

- 2007tik desagertzeko zorian dagoen animalia lez katalogatuta dago.
- Lau bikote bizi dira Urkiolako Parke Naturalean. Guztira, zortzi sai zuri.
- Hauetxek dira bikote bakoitzaren bizilekuak: Mugarra, Anboto, Atxarte eta Ipizte inguruak.
- Arrautza bat edo bi erruten dituzte martxo-apiril inguruan.
- Hainbat habia izan ditzakete, baina eurretari bat da nagusia, eta ahal dutela bertan biziko dira beti.
- Martxotik irailera Durangaldean bizi dira. Irailean Afrikara migratzen dute, bizitzeko klima egokiago baten bila.
- Migrazioan 3.000 kilometro inguru egiten dituzte 14 bat egunean.
- Parkeko hainbat giza jarduera mugatuta daude espeziea babesteko.

dira sarean eta jendearen artean, eta sarritan bide horiek eurek errepikatu gura izaten dituzte", gehitu du.

1989an Urkiolako Parke Naturala sortu zenetik hona, hainbat lege ipini dute indarrean bertako fauna eta flora babesteko. Esaterako, Atxarteko eskalada bide batzuetan ibiltzea debekatuta dago urteko hainbat hilabetetan. Horrez gainera, 2016tik hona, Euskal Herriko hiru gailurrik enblematikoak (Gorbeia-Anboto-Aizkorri) zeharkatzen dituen Hiru Haundiak 100 kilometroko lasterketa urrian egiten da ekainean beharrean. Anboton, Mariren koba ere ezin da gura den guztietan bisitatu: urtarriletik irailera bitartean debekatuta dago. Neurri hauek guztiek eta gehiagok sai zuriaren eta beste zenbait espeziaren ugalketa babestea dute helburu, martxotik irailera bitartean hemen egoten direlako, Afrikarantz abiatu aurretik.

Baina neurriak ez dira beti errespetatzen. Zuberogoiak An-

botoko Mariren koba ipini du adibide moduan. "Handik ingurutik nabilen egun guztietan ikusten dut jendea kobaren inguruan". Honako hau da horren ondorioa: "Sai zuri bikote batek abandonatu egin zuen han inguruan zuen habia eta beste batera joan zen". Izan ere, sai zuriek hainbat habia izan ditzakete. Euretari bat habia nagusia izaten da, lehenengo bizitokia, eta beste erremediorik ez badute aldatzen dira lekuz bakarrik.

Anboto mendira igotzeko ohiko bideetatik kanpora "jende asko" ikusten duela dio Zubero-goitiak. "Horixe da arazoa, izkina guztietatik ibiltzen direla, alde batetik eta bestetik. Ikaragarria da". Horrek sai zuriarengan ez ezik, inguruko fauna eta flora osoan "neurri handiko" kalteak eragin ditzake.

"Arazoa ez da jendea mendian ibiltzea. Arazoa sortzen da jendea edonondik dabilenean"

Erantzukizun kolektiboa

Bota ur tanta bat urez bete-beterik dagoen edalontzi batera eta gainezka egingo du. Baina azken tanta hori ote da bakarrik edalontziak gainezka egin izanaren erruduna? Zubero-goitiaren ustez, erantzukizun kolektiboan dago gakoa. "Inork ere ez du uste bere akzio puntualak arazorik sortzen duenik, baina efektu sinergiko baten parte bihurtzen da. Batek eragindako kaltea aurreko beste batek eragindakoari gehitzen zaio eta kate bat osatzen dute. Denok

gara desgaste jarraitu honen eragileak", azaldu du.

Egoera honi aurre egiteko errezetako bat "zentsuz" jokatzeko dela dio. "Mendian ibiltzeko, ohiko mendi bideak daude eta euretatik ibili behar da. Hortik irteten dugunean hasten dira arazoak. Bakoitzak gura duena egiten badu ez dugu parke naturalik izango. Denon ardura da gure aberastasuna zaintzea", argitu du.

Egoera honi aurre egiteko errezetako bat "zentsuz" jokatzeko dela dio Iñigo Zubero-goitiak

"Toleranteegiak gara"

Gauza bat da legeak indarrean jartzea eta bete bat betearaztea. Ildo horretatik, herrialde "toleranteegiak" garela uste du Zubero-goitiak. Bere ogibideak munduko parke natural askotara eramaten du: Kanadakoetara, Argentina-koetara, Costa Ricakoetara... Eta beste inon ere ez du hemengorik ikusi. "Toki horietan bide jakin batzuetatik baino ezin zaitezke joan, eta bide horietatik irteten bazara isuna ipiniko dizute. Kanadan 10.000 eurorainoko isunak ipintzen dituzte mendi bideetatik irtenez gero". Baina, hemen, parke natural baten arrakasta bisitari kopuruaren arabera neurtzen dela salatu du: "Horri ematen zaio balioa sarritan. Baina ez luke horrela izan behar. Urkiolakoa parke natural bat da eta bertako aberastasunari eusteko bidean izandako lorpenak izan beharko lirarteke neurgailurik garrantzitsuenak".



Mugarra inguruko sai zuri emearen irudia. JUANKAR ANDRÉS

Mugarra sai zuri emea ia hil egin zen 2010ean, pozoindutako arratoi bat janda

Ekosistema bat oso egitura delikatu da eta garrantzirik bakoa dirudien akzio txiki batek uste gabeko ondorioak ekarri ditzake. Horren adibide da Mugarra-Untzillatx inguruan bizi den sai zuri emeari, goiko argazkikoari, 2010ean gertatu zitzaiona.

Sai zuria hegazti sarraskijalea da batez ere, eta Mugarra emeak pozoinduta hildako arratoi bat jan zuen behin. Hilzorian

Sai zuria Bizkaiko Birgaitze zentroran eraman zuten, hilzorian, eta errekuiperatu egin zen

zegoela, pertsona batek aurkitu eta abisu eman zuen. Fauna Basatiaren Bizkaiko Birgaitze Zentroran eraman zuten segituan. Han, behar zuen tratamendua eman zioten. Errekuiperatu egin zen eta berriro askatu zuten bere habitatean.

Antzerako adibideak beste hegazti mota batzuetan ere izan dira. Esaterako, belatz handi bati honako hau gertatu zitzaion behin: airean zebilen drone baten hegialak hanka biak moztu zizkion. Kasu honetan, ez zuen

Mugarra sai zuriaren zortea izan eta lurrean odolostuta hil zen, Zubero-goitiak gogoratu duenez.

Sai zuriaren adina

Urkiolakoa Parke Naturelean bizi diren zortzi sai zurietatik bik identifikaziorako eraztunak dituzte hanketan. Mugarra emea da euretari bat. 2010ean ipini zioten eraztuna, eta ordurako eme heldu bat zen. Sai zuria sei urtegeztan heldu da helduarora. Beraz, adituek badakite 16 urte dituela gutxienez. Anbotoko arra da markatuta dagoen beste sai zuria. 2006an ipini zioten eraztuna, jaio zen urtean. Beraz, 14-15 urte ditu. Gainerako sai zuriei buruz seguru esan daitekeena da den-denak helduak direla.

Sai zuria gainerako sai espezieetatik erraz bereizteko modukoa da: txikiagoa da, 1,5 metro inguruko hego-zabalerakoa. Ez dauka beste saiengan hain bereizgarria den sama luzerik, eta lumaje zuria da. Laranja koloreko mokoa du.

3.000 kilometro 14 egunean

Durangaldeko neguko klima ez da batere egokia sai zuriarentzat. Horregaitik, bai Urkiolakoa Parke

Naturaleko lau bikoteek eta baita Euskal Herrian bizi diren gainerako 45-50 bikoteek ere, Afrika hegoaldera migratzen dute iraila helden denean. Senegalera eta antzeko herrialdeetara joaten dira. 14 bat egunean 3.000 kilometro egiten dituzte. Sai zuri guztiak ez dira hain urrun helden. Batzuek Extremaduran aurkitzen dituzte kondizio egokiak negua igarotzeko. Azken urteetan nabarmendu

Behin, drone baten hegialak hanka biak moztu zizkion belatz handi bati eta odolostuta hil zen

den joera horren arrazoia "aldaketa klimatikoa" dela azaldu du Zubero-goitiak. Neguak ez dira hain gogorak orain eta behar duten janaria aurkitu dezakete. Dena dela, ez da eskualdeko saien kasua. Dauden tokian daudela, udaberria helden denean, martxo hasieran, sai zuriek kontrako bidea egingo dute eta Euskal Herrira bueltatuko dira arrautzak errutera eta kumeak haztera, horixe baita euren espeziearen biziraupena bermatzeko bidea.



Eskualdean bizi den sai zuri baten hegaldia. JUANKAR ANDRÉS

184.000 euroko laguntza inguruko enpresetan 28 durangar kontratatzeko

Durango Udalak kontratazio laguntzak kaleratu ditu. Lanbidegaz batera eginiko Kontratazio Laguntzen bitartez, inguruko enpresek 28 durangar kontratatuko dituzte



Kontraturik gehienak merkataritza arloan egingo dituztela aurreratu dute.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Diruz lagunduko dituzten 28 kontratu horietatik hamazazpi lanaldi osokoak izango dira. Gainerako hamaikak, ostera, lanaldi partzialekoak. Kontratuen iraupenari dagokionez, Durango Udalak honako hau jakinarazi du: hamasei kontratuk sei hilabeteko iraupena izango dutela eta gainerako hamaiek hirutik sei hile bitartekora. "Sasoi gatxa" dela-eta, udalak egonera hobetzen lagundu gura du "ahal den neurrian".

Lanaldi osoko hamazazpi kontratu eta lanaldi partzialeko beste hamasei lagunduko dituzte diruz

laz 85.597 euro ipini zituzten kontratazio laguntzetarako; kopurua %215 igo dute aurten

Iaz 85.597 euro ipini zituen eta kopuru hori %215 igo du aurten. Horrela, aurtengo diru poltsa 184.091 eurokoa da. Laguntzarik gehienak merkataritza arloko negozioiek jaso dituzte. Udalak Lanbidegaz batera aktibatu du programa hau.

Landako Guneak gune bi izango ditu auto elektrikoak kargatzeko

DURANGO • JONE GUENETXEA

Durango Udalak Energiaren Euskal Erakundearen diru laguntza jaso du Landako Gune aparkalekuan auto elektrikoak kargatzeko gune bi ipini ahal izateko. 34.466 euroko laguntza lortu du, aurreikusiriko inbertsioaren %100. Kargatzeko guneak urte amaierarako prest izatea gura du udalak. Agintariek adierazi dute egitasmoak herri "jasangarriagoa lortzeko eta aztarna ekologikoa murrizteko" ekarpena egingo duela.

Berrizen martxan da tokiko merkataritza suspertzeko hirugarren kanpaina

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Berrizko Merkatarien Elkar-teak eta Berrizko Udalak elkarlanean antolatu dute egitasmoa, hirugarrenez. Tokiko merkataritza bultzatzea izango da helburua. Oraingoan bonu mota bakarra egongo da eskuragai. 30 euro ordainduta, erosleak 45 euroko bonua eskuratuko du, hau da, udalak 15 euro emango ditu bonu bakoitzeko.

'Bizi Berriz' kanpainaren sustatzaileek azaldu duteenez, saltoki bakoitzak bonu kopuru zehatz bat izango du eta pertsona bakoitzak bonu bakarra erosi ahal izango du. Guztira, 730 bonu ipiniko dituzte eskuragai.

Bonuak maiatzaren 17tik eskuragarri daude herriko komertzioetan, eta ekainaren 17ra arte trukatu ahalko dira.

Carlos de Cos-ek irabazi du Stop Bide Indarkeria elkartearen argazki lehiaketa

190 argazki aurkeztu dituzte lehiaketara. Antolatzaileek esan dute inoizko parte hartzerik handiena egon dela

DURANGO • J.D.

Lehiaketaren helburua garraio bide seguruago eta jasangarriagoak sustatzea zen eta irudiek gai hori islatu behar zuten. Aurkezturiko 190 argazkietatik hamabi onenekin sari banaketa egin zuten joan zen astean Durango Olajaregi hotelean. Carlos de Cos-en *Ihesbidea* argazkia izan da irabazlea. Oroko-

rrean, jasotako argazkien kalitatea nabarmendu zuten antolatzaileek.

Argazki sarituekin, herririk herri joango den erakusketa mugikor bat antolatuko dutela aurreratu zuten Rosa Trinidad Stop Bide Indarkeriari elkarteko presidentek.

Ekimenak EAEko hiru Aldundietako ordezkariak batu zituen, besteak beste.



Carlos de Cos lehiaketako irabazlea Rosa Trinidadekin batera.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2021eko maiatzaren 21a
19. urtea - 850. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Garaiko egonaldiak mesede egin dio

Anna Van der Breggen Munduko txapeldunak irabazi du aurtengo Durango-Durango klasikoa. Egunotan Garaiko Landetxean hartu du ostatu SD Worx taldeko kideekin

GARAI • EKAITZ HERRERA

Halantxik dirudi, Garaiko patxadak mesede egin diola, bere entrenamenduek eta Garaiko egonaldiak tandem egokia osatu dutela. Bera zen faborittoa, herbeheretarra, munduko txapelduna, Anna Van der Breggen. Eta berarengan ipinita zeuden aurreikuspen guztiak bete zituen Durango-Durango klasikoaren aurtengo edizioa poltsikoratuta. Ibilbidea osatzeko behar izan zuen denbora, hauxe: 02.51.23. Denbora tarte horretan, baina, oztopoak, eta ez gutxi. Txirrindularien arteko ihesaldi saiakerak batetik, eta Annemiek Van Vleuten lehiakidearen itzala bestetik. Van der Breggenek gogor lehiatu behar izan zuen Goiuriako eta Momotioko igoeretan, Garai aldean, non eta egun horietan operazio-base lez erabilitako lekutik gertu hain zuzen ere.

Izan ere, Anna Van der Breggenek eta SD Worx taldeko gainerako txirrindulariek Garaiko Lande-

txean hartu dute ostatu egunotan. Bertan lur hartu zuten joan zen zapatuan, eta bertan egon dira aterpetuta eguaztenera arte. Landetxea erabili zuten prestaketak egiteko base modura. Eta bai, argi geratu da ondo zainduta egon direla bertan, ez zaiela ezertxo ere falta izan. Landetxeko arduradun Jasone Gezuragak eta bere lankideek detailerik txikiena ere zaindu dute txirrindularien egonaldia ezin atseginagoa izateko. "Zaindu, zaindu ditugu, eta disfrutatu ere egin dute gugaz", dio Gezuragak. Txirrindulariek herriko patxada arnastu dute, eta jan, bapo-bapo jan dute, osasuntsu. Platerkada bat pasta orain, barazki parrillada bat gero, Garaiko gatzatua handik eta arroz pastel txataltxo bat hemendik.

Ez dago dudarik. Oizpeko hai-zeak mesede egin die. Van der Breggeni ere bai. Beste garaikur bat eraman dute Durangaldetik Herbehereetara.



Aurrean Anna Van der Breggen eta bere atzean Garazi Estebez.



SD Worx txirrindulari taldeko kideak eguaztenera arte egon dira Garain.

Zornotzako La Tejera parkea berritzeko lanak martxan dira

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Udalak berrikuntza lanak hasi ditu La Tejera lez eza-gutzen den parkean. Umeentzako jolasgune berri bat eta txakur-reen olgetarako txoko mugatu bat atonduko ditu bertan. Bestalde, oinezkoen pasealekuko asfaltua eta eserlekuak ere berrituko ditu. Aurreikuspenen arabera, lanek hiru bat aste iraungo dute.

Udalak jakinarazi duenez, La Tejera parkea berritzea herritar askoren eskaria izan da. Hain zuzen ere, 2021eko aurrekontu parte hartzaileetan islaturiko jardueretariko bat da. Parkea berritzeko inbertsioa 100.000 euro ingurukoa da. Ixerango eta Gudari kaleek bat egiten duten lekuan dago parkea.



*Baliozko eskaintza 2021/06/30era arte. Informazio gehiago www.mercedes-benz.es-en

Hibrido Entxufagarriak

EQ POWER

Aukeratzea inoiz ez da hain erraza izan.

Ezagutu gure Hibrido Entxufagarriak, merkatuko autonomia elektriko altuenak dituztenak, eta gidatu Hibrido Entxufagarrien gama liderra Espainian, bai hiriguneetan bai errepideetan erabateko askatasuna emateko gai dena.

Eskaintza.

- Wallbox kargatzailea opari, 3 urteko bermea duena.
- Instalazioa dohainik*.

Mercedes-Benz



Aguinaga

Mercedes-Benz kontzesionarioa
C/ Retuerto kalea, 38.
48903 BARAKALDO.
Tel.: 94 497 00 74.
www.mercedes-benz-aguinaga.es

Boroa enpresa-parkea, 2A-3 partz.
2A-3. 48340 ZORNOTZA.
Tel.: 94 630 17 47.

Botika Zaharra kalea, z/g.
48014 BILBAO (DEUSTU).
Tel.: 94 447 08 40.

Iparragirre etorbidea, 90.
48940 LEIOA.
Tel.: 94 463 11 75.

Elorriok etxeko eta zaintza lanetarako informazio eta aholkularitza zerbitzu berria aurkeztu du

Elorriko Udaletik jakinarazi dutenez, zerbitzu berri honeguz "isilduta" dagoen kolektibo bati lagundu gura diote

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Maiatzaren 14tik zerbitzu berri bat dago Elorri: etxeko eta zaintza-ko enplegurako informazio eta aholkularitza zerbitzua. Zerbitzu berri horrek aurrez aurre edo modu telematikoan funtzionatzen du eta etxeko eta zaintza-lanetan dabilen langileei dago zuzenduta, eta baita horiek kontratatzen dituztenei ere.

"Jakin badakigu ez direla beti errespetatzen gure herrian bizi eta lan egiten dugun guztion lan eskubideak. Hain zuzen ere, etxerik etxeko eta zaintzako lanetan dabilen langileak egoera zaurgarrian daude askotan, eta langile lez dituzten eskubide eta bete-beharrei buruzko prestakuntza eta informazio gutxi dute", azaldu du Maria Herrero alkateordeak.

Bestalde, Alazne Mendizabal Berrintasun zinegotziak azpimarratu du zerbitzu honeguz "isilduta" dagoen kolektibo bati lagunduko diotela.

Arreta motak

Arreta presentziala eta telematikoa izango da. Aurrez aurrekoa hileko lehenengo barikuan izango da, 10:00etatik 15:00etara,

udaleko gizarte-zerbitzuan. Eta telematikoa asociacionmujeresconvoz@gmail.com helbidera idatzita edo 655 603 809 whatsappera idatzita.



Ezkerretik hasita, Alazne Mendizabal, Lyudmila Montoya eta Maria Herrero.

Elorriko Udala lanean dabil Kurutzia gako bidegurutzeko arazoei konponbidea emateko

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Kurutzia gako bidegurutzea hobetu eta trafiko-arazoak amaitzeko asmoz, Elorriko Udala azterketa bat egiten dabil. Bertatik azaldu dutenez, Gerediaga-Elorrio autobidearen eraginez bidegurutze horretako zirkulazioa areagotu egin da, eta gune horrek soluzio eraginkor bat behar du.

Hori horrela, eta mugikortasun seguruaren alde, udaleko teknikariak eta gaian aditua den enpresa bat lanean dabilta soluzio bat emateko. Behin lehenengo azterlana eginda, egin beharreko jarduketak zehaztuko dituztela jakinarazi dute.

Bestalde, udaletik azaldu dute proiektu horren barruan autobus geltokiaren kokapena aldatzea ere aurreikusten dutela.

Atxondotik Jaurlaritzara joan dira uda honetan eskolan sukaldia ipintzea eskatzeko

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Jokin Bildarratz sailburuari gutun bat helarazi eta gero, Atxondoko eskolako guraso eta umeak Jaurlaritzan izan ziren joan zen astean, uda honetan Atxondoko eskolan jantokia ipini dezaten eskatzeko.

Berton Bertokoa dinamikak maiatz hasieran jakinarazi zuenez, Hezkuntza Sailak aldatu egin ditu Durangaldeko hainbat ikastetxetan sukaldia ipintzeko zituen aurreikuspenak. Atxondon, esaterako,

2020ko udan egin behar zuten sukaldia, baina denbora falta argudiatuta, urte horretako otsailean jantokiko lanak 2021eko udara atzeratu zituzten. "Orain, berriro denborarik ez dagoela esanda, 2022ko udara atzeratu gura dituzte obrak. Lanek bost hilabete iraungo dutela aurreikusten da. Bost hilabete horietan eskola orduak eta obrak bateratu beharko direla kontuan izanda, obrak ahalik eta lasterren hastea eskatzen dugu", esan dute Berton Bertokoakoek.



Atxondoko guraso eta umeak Eusko Jaurlaritzaren egoitzaren aurrean.

CENTRO INTEGRADO DE FORMACIÓN PROFESIONAL
ZORNOTZA
LANBIDE HEZKETA
IKASTETXE INTEGRATUA

DATAK	<p><i>Aurrematrikula</i> maiatzaren 31tik ekainaren 18ra</p>	<p><i>Matrikula</i> uztailaren 19tik 30era</p>
--------------	--	--

ESKAINZA OSOA

GOI-MAILAKO ZIKLOAK

- Metal-Eraikuntzak
- Web Aplikazioen Garapena
- Mekatronika Industriala

ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

- Merkataritza Jarduerak
- Erizaintzako Zaintza Osagarriak
- Mantentze-lan Elektromekanikoa
- Soldadura eta Galdaragintza
- Mikroinformatika-sistemak eta Sareak

ESKAINZA PARTZIALA

- Erizaintzako Zaintza Osagarriak
- Soldadura eta Galdaragintza

ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA

- Langile langabeek eta landunei zuzendutako ikastaroak

☎ 946 730 251 ✉ info@fpzornotza.com 🌐 www.fpzornotza.com 🐦 @fpzornotza



Ostalaritza gida



Durango



OIERDI

Herriko gudarien 8, DURANGO

Tel.: 946 129 824

Gosari eta pintxo aukera handia giro ezin hobean.



Iurreta



GAUARGI

Dantzari Etxetalea, IURRETA

Tel.: 944 356 674

·Gosariak, pintxoak, molleteteak, rabak, errazioak eta askotariko tortilak enkarguz,...



Durango



AI AMA

Joxe Miel barandiaran 2, behea, DURANGO

Tel.: 946 232 240

Gosaldu bazkaldu zein afaltzeko aukera. Gozo eta osasuntsu gainera!



Abadiño



ABARKETERUENA


Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO

Tel.: 944 657 790

Eguneko menuak eta asteburuetako menu bereziak. Goizetik pintxoak. Giro oso ona.



Durango




MIKELDI TABERNA

Kalebarria, 7 - DURANGO

Tel.: 944 073 988

Gosari eta pintxo aukera handia giro ezin hobean.



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**



Askotariko produktuekin osaturiko azoka egingo dute Mañarian domekan honetan

Herriko eta inguruko 14 ekoizle batuko dira; gaur erabakiko dute azoka non egin; eguraldi iragarpena aldekoa bada plazan egingo dute, eta, bestela, plaza ondoko pilotalekuan

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Mañariko Aste Kulturala bere azkenera heltzen dabil. Domeka honetan amaituko da, urteroko ekin-tza bategaz: askotariko produktuen azoka. 10:00etatik 14:00etara, herriko eta inguruko ekoizleen 14 postu bisitatu ahalko dira.

Azken egunetan eguraldia aldatu da. Horregaitik, udal arduradunek azken unera arte itxaron gura izan dute azoka non egin erabakitzeko. Hain zuzen ere, gaur erabakiko dute plazan edo herriko

Zirkuitu bati jarraituz ibili beharko da azokan; sartzeko eta irteteko puntu bana izango du



Aurreko urte batean Mañarian eginiko azokaren irudia.

pilotalekuan egingo den. Euririk iragarrita ez badago plazan egingo dute, eta, osterantzean, frontoian.

Batera zein bestera, bisitariak zirkuitu bati jarraituz ibiliko dira azokan; hau da, sarrera eta irteera

puntu bana egongo da eta norabide batean ibili beharko da.

Askotariko produktuak aurkitu ahalko dira postuetan: ogia, gazta, gilda, eztia, pateak, ortuariak, txerrikiak, landareak, sagardoa...

Bizi dugun egoeraren ondorioz, aurtun ez da ahuntz azpigorrien txapelketarik egingo. Horrez gainera, ez dute antxumerik erreko azokan, eta ez dute horren pintxorik salduko.

Agirrek barkamena eskatu du alkoholemia proban positibo eman ostean

Mallabiko alkateak maiatzaren 1eko kontrol batean eman zuen positibo; gidabaimena kendu diote, zortzi hilabeterako

MALLABIA • J.D.

Igor Agirre Mallabiko alkateak positibo eman zuen alkoholemia kontrol batean joan zen maiatzaren 1ean. Durangon eginiko epaiketa azkar baten ostean, gidabaimena kendu diote, zortzi hilabeterako. Alkateak azaldu du "lotsatuta eta damututa" dagoela eta aitortu du "akats larria"

dela. "Txarto hasitakoa ahalik eta ondoen amaitu gura dut. Horretarako, gertatutakoaren berri eman behar diet bizilagunei, eta Mallabiko herriari barkamena eskatu", dio Agirrek. "Ez da berriro gertatuko", jarraitu du. Bestalde, pandemiaren aurka indarrean dagoen araurik ez zuela "urratu" ere zehaztu gura izan du.

Iurretako Lanbide Heziketa zentroak CO2 neurgailua garatu du


Sei prototipo egin ondoren, orain beste 12 egingo dituzte

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako Lanbide Heziketa zentroak CO2 neurgailu bat diseinatu eta garatu du, eta ikasleek eurek muntatutako sei prototipo egin dituzte. Herriko bibliotekan eta nagusien egoitzan bana ipiniko dute, eta hirugarren bat Durangaldeko Enpresen Elkarteari emango diote. Besteak zentroan ipiniko

dituzte. Gainera, beste dozena bat gehiago egingo dituztela esan dute, zentroan ipintzeko.

Kolore bidezko sentsore batez batera, neurgailuak tenperatura eta hezetasun datuak ere interpretatzen ditu. Esan dute zenbait ikastetxe eta erakundek interesa agertu dutela eta "oso pozik" daudela.



ELORRION, HURRENGO ERAIKUNTZA

Azkeneko biak!

4 gelakoak (143m²)

Terraza oso zabalak (106m²)

Garaje zabalak (37-86m²) + beste toki bat (28m²)

Lorategiagaz

Eraikinaren energia kalifikazio-etiketa: A

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Tel.: 946 816 673
www.zarateyexpe.com
Bixente Kapanaga 19, Iurreta

Palestina eta Kolonbian bizitzen dabilzan egoera salatu dute hainbat elkarretaratzetan

Elorrioren eta lurretan egin dituzte protestak. Durangon berbaldea eta kontzentrazioa egingo dituzte domekan

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Nazioartean gertatzen dabilzan gatazka eta gerra egoerak oihartzun zabala izaten ari dira gure eskualdean. Horren erakusgarri dira lurretan eta Elorrioren Palestinako herriaren alde egin dituzten elkarretaratzek. Elorrioko kasuan, gainera, Kolonbiako herritarrek

bizitzen dabilzan errepresioa ere izan dute gogoan.

Elkartasun adierazpen horiek jarraipena izango dute asteburuan. Izan ere, Durangon mobilizazio gehiago iragarri dute domekarako. 12:00etan Palestinaren egoerari buruzko berbaldea eskainiko dute Andra Marian. 13:00etan izango da, *Palestina Libre* lelopean.

fuxiatu palestinarrak eskainiko du berbaldea. Hawarik urteak daramatza eskualdean bizitzen, eta txikitatik bizi izan du bere herriaren kontrako errepresioa. 2018ko maiatzean berripaper honetako Markel Onaindia kazetariari adierazi zionez, Hawari Libanon jaio zen, bere gurasoak Palestinatik alde egitera behartuta egon eta gero. Orduko hartan ere bere herrialdeak bizi zuen egoera larria deskribatu zuen: "Egoera uneoro larritzen doa, oso gogorra da palestinarentzat. Jasanezina da eta edozein momentutan lehertu daiteke". Badirudi orduan iragarritakoak bete egin direla. Israelgo estatuak etenik barik bonbardatu du Gaza azken egunotan. Berbaldiaren ondoren, kontzentrazioa egingo dute Andra Marian. 13:00etan izango da, *Palestina Libre* lelopean.



Eguaztenezan Elorrioren egindako elkarretaratzek.

Saibigainera igotzera deitu dute sahararrei elkartasuna adierazteko

Río de Oro deituta, mendi martxa egingo dute domekan. 11:00etan irtengo dute, Urkiolako aparkalekutik



Río de Oro orain dela hilabete batzuk deitutako mobilizazioa.

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Río de Oro elkarteak aldarrikapenez beteriko mendi martxa bat antolatu du domekarako. Saibigainera igotzeko deia egin du, eta Saharako herriaren aldeko aldarrikapenak tontorretik lau haitzara zabalduko ditu. Saharako bandera eskuan hartu eta mendi martxagaz bat egitera deitu die elkarteak herritarrei. Bertan parte hartu gura duenak Urkiolako Bizkarra jatetxeko aparkalekura jo beharko du domekan. Handik ekingo diote Saibigainerako bidari, 11:00etan.

Azarotik gerran

Río de Oro gogora ekarri du Saharako herriak azarotik bizi duen gerra egoera. "2020ko azaroan sahararrak berriro ere zutitu ziren dagokien askatasuna aldarrikatzeko, eta oraindino hura lortzeko bidean daude, baina ez bakarrik, gu ere bidean gaude eta", esan du elkarteak. Saharak 46 urteko kolonizazio egoera bizi duela gaineratu du elkarteak.

EAJk gaitzetsi egin ditu Elorrioko eta Zaldibarko batzokien kontrako pintaketak

"Halako ekintza kolektibo eta antolatua" etetea eskatu du EAJk, "amorruta eta gatazka giroa" sortzen dutelako



Pintaketak Elorrioko Batzokian.

DURANGALDEA • M.Z./A.M.

Azken egunotan batzokien kontrako eginiko "erasoak" salatu ditu EAJ alderdiak. Gutxienez hamabi izan ziren joan zen asteburuan pintaketekin kalteturiko Bizkaiko batzokiak. Tartean, Elorriokoa eta Zaldibarkoa. "Halako ekintza kolektibo eta antolatua berehala etetea" eskatu du alderdi jeltzaleak, ekintzek "amorruta eta gatazka giroa" sortzea dutela "helburu" irizita. Era berean, gainerako alderdi politikoei "horrelako jokabideak" gaitzesteko eskatu die. Elorrioko batzokian, *PNV faxista* edo *Lotu txakurrak* zioten pintaketak agertu ziren. Zaldibarkoan, txakurrentza-

ko uhalak eta Ertzaintzaren aurkako mezuekin osaturiko "kartel erraldoi bat" agertu zen.

Ernainen protesta

Ekintzak Ernai gazte antolakundeak hartu ditu bere gain. Maiatzaren 7an Bilbon eta Gasteizen eginiko manifestazioetan Ertzaintzak gazteenganako izan zuen jarrera "oldarkorra" salatu gura izan dituzte pintaketekin. "Ertzaintzak oldarkor jo zuen manifestarien aurka eta 8 atxilotu eta 65 zauritu utzi zizuten guztira". Ertzaintzaren jokabide horiek ezin dira ardura politikorik barik geratu", azaldu du Ernaik.

Komunitatearen Deiadarra ekimena aurkeztu dute

Euskal joko eta kirolen topaketen lehenengo hitzordua asteburu honetan izango da; Abadiñon aurkeztu dute

DURANGALDEA • ARITZ MALDONADO

Ikastolen Elkarteak Komunitatearen Deiadarra ekimena aurkeztu du aste honetan Abadiñon. Euskal joko eta kirolak oinarri izango dituen topaketak antolatu dituzte; bost topaketa izango dira eta lehenengo zapata honetan izango da, Sopelan (Bizkaia), hondartzako parkinean. Endika Zinkunegi Ibilaldiaren ordezkariak azaldu du egun osoko egitaraua prestatu dutela. Sopelako Ander Deuna ikastola eta Leioako Betiko ikastola batuko dituzte (8,5 km) kate erraldoi baten bitartez; irrintzi deiadarragaz emango diote hasiera ekimenari. Ostean, jokoak hasiko dira. Gero, bazkaria egingo dute eta amaitzeko Garilak 26 taldearen kontzertua egingo da. Segurtasun neurriak bermatuko

direla azpimarratu dute antolatzaileek.

Lehia barik, ludikotasunetik

"Ekimenaren helburu nagusienetarikoa Euskal Herri osoan antolatzen diren ikastolen jaietako

Bost topaketa egingo dituzte urtea amaitu bitartean; lehenengo zapatuan, Sopelan

komunitatea indartzea izango da, ludikotasunaren bitartez", azaldu du Mikel Egibar ekimeneko koordinatzaileak. Horretarako, gaitasun fisikoen ezaugarriak asko zainduko direla adierazi dute antolatzaileek.

"Desokupa eta halako enpresak kontratatzea negozio ona da enpresentzat, ez etxeen jabeentzat"

Bilboko Okupazio Bulegoak salaketa ipini du Zelaietako A. Baeschlin kaleko eraikina hustea "legez kanpoko" izan zelakoan; epaileak onartuko duelakoan daude

ABADIÑO • ARITZ MALDONADO

Bilboko Okupazio Bulegoko kideak "baikor" daude joan den astean Durangoko epaitegian ipiniriko salaketak direla eta; tramitera onartuko dituztelakoan daude. Alde bati, Desokupa enpresa salatu dute etxean indarrez sartzeagaitik eta bizilagunei mehatxu egiteagaitik. Bestetik, jabea ere salatu dute norbanakoaren eskubidea modu arbitrarioan egikaritzeagaitik. "Kasu honek, delitu larri bat egon daitekeela uste dugu. Jabe bati etxea okupatu badiote, baditu bere bideak horri aurre egiteko; salaketa ipini behar du epaitegian, edo polizia-etxean. Bide

bi ditu, bide penal edo zigorgilea eta bide zibila; jabe guztiek dute aukera bata edo bestea aukeratzeko, baina ezin ditu pertsona batzuk kontratatu inor botatzeko", adierazi du Iñaki

Desokupa enpresa salatu dute etxean indarrez sartzeagaitik eta bizilagunei mehatxu egiteagaitik

Carro BOB elkarteko abokatuak.

Apirilaren 15ean Desokupa enpresako hainbat kide Abadiñora

etorri ziren, Zelaieta auzoko Alfredo Baeschlin kaleko eraikin bat hustera. Bertako bizilagunak irtenaraztea "legez kanpoko" izan zelakoan, Bilboko Okupazio Bulegoak jabea eta parte hartu zuten Desokupa enpresako kideak salatu zituen.

Carroren berbetan, horrelako "dinamikak" etxeen jabeen "kalterako" izan daitezke. "Desokupa eta halako enpresak kontratatzea negozio ona da enpresentzat, baina ez etxeen jabeentzat, eta Abadiñoko adibidea argia da: diru bat ordaindu du, baina eraikinak okupatuta jarraitzen du, eta, gainera, jabeak arazo legalak izan ditzake", esan du Carrok.



Apirilaren 15ean etxea hustu zuten uneetariko bat.



Joan zen asteko mobilizazioa Zaldibarren.

Zaldibar auziko "erantzukizunak argitzeko" eskatu dute Jaurlaritzak Beltranen bilaketa lanak eten eta gero

Eusko Jaurlaritzak Joaquin Beltran langilearen gorpuzkiak bilatzeko lanak etetea erabaki du; Zaldibar Argituk mobilizazioak egin ditu "erantzukizunak argitzea" eskatzeko

ZALDIBAR • A.M.

Josu Erkoreka eta Arantxa Tapia sailburuek agerraldia egin zuten maiatzaren 14an. Bertan, Zaldibarko hondakindegian desagerturiko Joaquin Beltran langilearen gorpuzkiak bilatzeari utzi egingo ziotela iragarri zuten. "Erabilitako metodologia egokia izan da, baina emaitza negatiboa", azaldu zuten. Bilaketa lanak etenda, hainbat eragilek "erantzukizunak argitzeko"

eskaria egin dute. Eta protestak ere egin dituzte. Esate baterako, Zaldibar Argitu plataformak deituta, manifestazioa egin zuten Zaldibarren.

2020ko otsailaren 5ean Eitzaga auzoko zabortegea amildu zenetik, dozenaka langile Alberto Sololuze eta Joaquin Beltran bilatzen ibili ziren; Sololuzeren gorpuzkiak iazko abuztuan topatu zituzten. Bilaketa lanak amai-

tutzat eman arren, zabortege inguruetako lurak egonkortzen jarraituko dute, gero zabortegea "betiko" zigilatuzko.

Verterren doluminak

Bilaketa lanak amaitu direla-eta, Verter Recycling enpresak "pena handia" agertu zuen ohar baten bitartez, eta enpresako kideak "lur jota" daudela adierazi zuten Sololuze eta Beltran lankideen heriotzarengaitik. Zaldibarko Udalak ere elkertasuna adierazi zion Joaquin Beltranen familiari ohar baten bitartez.

AURRE MATRIKULA

maiazaren 31tik
ekainaren 18ra

LANBIDE HEZIKETA 2021-22

Otaola Hiribidea, 29, 20600 Eibar, Gipuzkoa · 943 89 92 11
idazkaritza@uni.eus | www.uni.eus | @uni.eus

Aurrematrikulatzeko moduak:
+ Presentziala: **etorri zaitez!**
+ Web bidez: **www.uni.eus**
+ Ikasgunean

IKASTETXE PUBLIKO DOAKOIA *



Santa Ageda ermita ondoko aterpea konpontzen hasi dira Izurtzan

Iazko urte amaierako egun haizetsu batean zuhaitz bat jausi zen ermita ondoan dagoen aterpera, eta hainbat kalte eragin zuen teilatua eta eraikinaren egitura bertan

IZURTZA • JOSEBA DERTEANO

Iazko urri-azaroko egun haizetsu batean zuhaitz bat Santa Ageda ermitaren ondoan dagoen aterpera jausi zen eta hainbat kalte eragi zuen teilatua zein egitura. Joan zen astean kalte horiek konpontzen hasi ziren. Udalak hiru proiektu eskatu zituen eta eureta-

riko proposamenik onenari esleitu dizkio lanak, 15.609 eurotan. Bizkaiko Aldunditik diru laguntza

Udalak 15.609 eurotan esleitu ditu lanak, eta joan zen astean hasi ziren aterpea konpontzen

bat jaso dute. Konponketa lanek hilabete inguru iraungo dute gutxi gorabehera.

Aterpe horrek hainbat erabilera du. Esaterako, Izurtzako jaietako egun bat Santa Ageda ermitaren bueltan ospatzen da eta egun horretan taberna moduan erabiltzen da aterpea.



Joan zen astean hasi ziren ermita ondoko aterpea konpontzeko lanak.



Dantzariak lurretako plazan dantzan.

'Jantzari' dokumentala eskainiko dute Otxandion

Maiatzaren 29an emango dute dokumentala; Urduri dantza taldeak mahai-inguru bat antolatu du bezperarako

OTXANDIO • J.D.

Urduri dantza taldeak antolatuta, *Jantzari* dokumentala eskainiko dute Otxandion. Maiatzaren 29ko zapatuan izango da, 19:00etan, Mainondoko gimnasioan. Dokumentalak dantza parekidetasunaren ikuspegia lantzen du. Ekimen horren harira, bezperan, maiatza-

ren 28an, mahainguru bat egingo dute toki berean, 19:00etan. Urduri taldeko sasoi bateko dantzariak eta Iurretako dantzariak batuko dira. Bertan, besteak beste, Urduriren ibilbidea aztertuko dute genero ikuspegitik. Ekimen bietarako sarrera libre da, aforoa bete arte.

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

2021-2022

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOAK
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP



Ion Astigarraga Iriondo - Oñati
Mekatronika Industrialeko Goi mailako Teknikaria

Eskaintza akademikoa	Ate irekien jardunaldiak
•Automatizazioa eta Robotika Industrialia	Maiatzak 29 11:00
•Mekatronika Industrialia	
•Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa	
•Fabrikazio Mekanikoko Diseinua	
•Sareko Informatika Sistemen Administrazioa	

www.mondragon.edu/gmh orientazio.lhm@mondragon.edu
664 298 704 • 664 298 683

Zergatik aukeratu zenuen goi mailako ziklo hau? Eta zergatik MGEP?

Urte askoan arlo psikosozialean lan egin ondoren eta lan karga baxua zegoenez, ULMA Forjan lan egiteko aukera sortu zitzaidan. Lanean hasi eta oso gustura sentitu nintzen enpresan lanean. Bertan geratzeko aukera ere eskaini zidaten, baina minimo bat eskatzen zidaten, hau da, alor industrialean goi mailako heziketa ziklo bat betetzea, nire formakuntza Psikologian Lizentziaduna baitzen. Gaztetatik ere beti gustatu izan zaizkit tresna eta ingeniari munduko kontuak. Nire interesak eta enpresak eskatutakoa bateratu zirenez, ziklo bat egitera animatu nintzen. Honela, aukerak ikusirik, gehien gustatu zitzaidan heziketa zikloa mekatronikakoa izan zen. Eskola aukeratu aurretik ate irekietan egon nintzen, bertatik bertara informatu eta instalakuntzak ezagutzeko. Asko gustatu zitzaidan metodologia eta erronken bidezko ikasketa. Gainera, Mondragon Goi Eskola Politeknikoak inguruko enprekin duen hartu-emanak ere erakarri ninduen, hau puntu garrantzitsu bat dela esango nuke.

Heziketa ziklo honetan ETHAZI metodologia aktiboarekin lan egiten duzue, hau da, ekipo-lanean erronkak eginez funtzio profesionalak lantzen dituzue. Zer nolako erronkak egin dituzue?

Egia esan lan asko egin ditugu taldetan, lehenengo urtean elektrizitateko, pneumatikako edota konfigurazioko (PLC bidezko praktikak) lanak gogoratzen ditut. Urte amaieran egin behar genuen erronka ezin izan genuen egin praktikoki COVID-19a zela eta, baina simulazio bitartez ikasgaiak lantzeko aukera izan genuen. Bigarren urtean, praktikotasun alde gehitu egin zen eta amaierako proiektu polit bat izan genuen, fresagailu baten automatizazioa robot eta zinta garraiatzaile baten bitartez.

Nola baloratuko zenuke esperientzia hau?

ETHAZI metodologiak funtzio profesionalak lantzeko aukera eman dit. Ikaste modu honek ezagutza teknikoetatik at, beste hainbat kompetentzia garatzen laguntzen digu: pertsona ezberdinen iritziak entzun, aztertu eta bateratu, egiteko modu ezberdinak ezagutu, erronka handiak eginkizun txikietan zatitu, egindako akatsen kudeaketatik ikasi, ikaste prozesuan autonomia landu, emaitza onak emango digun erabakiak hartu...

DUAL formazio programan ari zara, kontatuko diguzu zure esperientzia?

Nire DUALa ULMA Packaging enpresan egiten dihardut. Enpresa honek elikadura esparruko, produktu galkorren, medikalizatuen edota elikadurakoak ez diren produktuen ontziratzeko makinak diseinatu eta fabrikatzen ditu. Oñatin du bere egoitza nagusia, Garibai auzoan; nahiz eta nazioarteko presentzia duen enpresa bat den. Nire kasuan, termoformatu departamentuan nago, packaging teknologia hau erabiliko duten makinak azpi-elementu ezberdinak muntatzen. Lehenengo egunetan, lankideen laguntza, lantokiko espazio ezberdinak ezagutu, eta makinak muntatzeko beharrezko diren planoak interpretatzen hasi nintzen. Honekin batera estandarrak diren piezak muntatzen jardun nuen luze. Denbora aurrera joan hala, makina konplexuagoak autonomiaz muntatzen hasi naiz. Prozesu honetan garrantzitsua da sortzen ditugun elementu bakoitzaren funtzioa zein den, eta beronek makinaren zein eginkizun burutzen duen ulertzea. Nik lehenengo urtean klaseak lanarekin uztartu nituen, goizean klaseak eta arratsaldean lana egiten nuen, honek zekarren gain kargarekin. Duala zorrotza da, klasea joateaz gain lanean ere ordu batzuk sartu behar dituzulako. Klaseko ardurak, erronkak, azterketak prestatzen dituzun bitartean, lanean ere emaitza onak eman behar dituzula dakizu eta horrek estresa eragiten du asteko egun batzuetan. Garrantzitsua da lanak denboraz egin eta egunak ondo antolatzea. Esperientzia oso aberasgarria dela uste dut DUALa, aukera ezin hobea eta lehenengo urteko ikasleei saia daitezela gomendatzen diet. DUAL egiteak praktikak egiten dituzun lekuan geratzeko aukerak handitzen ditu.

Zer ikasi duzu ULMA Packaging-en?

Asko ikasi dut, pertsonalki eta profesionalki... Antolatzen ikasi dut. Nire lan denbora estrategikoki antolatu behar izan dut, enpresaren beharretara egokitzeko. Baita ere, lana ez dela bakarrik "ezagutza teknikoak izatea", lan egiteko estilo ezberdinetara egokitzea baiziki: pertsonak ezagutu, jarrera ezberdinetara moldatu...

Bete al ditu Mekatronika Industrialeko Goi Mailako Zikloak zure espektatibak?

Bai, nire espektatiba mekatronika alorreko profil profesional bat garatzea eta esparru horretan lan esperientzia lortzea zen. Harreman profesionalak egin ditut, nire ezagutzak eguneratu ditut eta inguruko enpresa kooperatiba bateko parte izateko aukera ere izan dut. Lan munduan, berriz, profil erakargarri batekin nire burua aurkezten lagundu dit ziklo honek.



"Aurrerapausorik ezean" greban jarraituko dute Rothenbergerren

ABADIÑO • EKAITZ HERRERA

Abadiñoako Rothenberger enpresako langileak mobilizazioak egiten dabilta hitzarmena berritzea eskatzeko. Eguaztena bigarren greba eguna izan zuten eta "aurrerapausorik ezean" beste hiru egunetara deitzeko asmoa dute.

Hitzarmena berritzea da beharginen eskakizuna. "Lan mugimendu handia dago, baina patronala hitzarmenaren negoziazioa blokatzen dabil pandemiaren aitzakiapean", azaldu du ELAko Aitor Taranco ordezkariak. LABeko Mikel Urangak, bestalde, beharginek eskatzen dituzten puntuetariko batzuk zerrendatu ditu. Adibidez, "arloan arloko soldata-igoerak egotea",



Rothenberger enpresako langileak agerraldia egin zuten enpresa aurrean.

"primen bitartez ordaintzen direnak soldataren oinarrian islatzea", eta "KPI indizea igotzea". CCOO sindikatuko Juan Carlos Carnotak

Patronala eta sindikatuak atzo batu ziren eta edizio hau ixterako ez zuten akordiorik lortu

gaineratu du "bereizketak" daudela langiletik langilera, eta baja horiek bereizketarik barik kudeatu behar direla. Patronala eta sindikatuak atzo batu ziren eta edizio hau ixterako ez zuten akordiorik lortu.

Politikan

Jesica Ruiz Perez
PSE-EE



Regoyosen margolana ikusgai

Duela sei hilabete (azaroan) jakin genuen Durangoko Udalak Darío de Regoyosen margolan bat erosteko aukera izan zuela. Artelana partikular batena zen eta 120.000 €-ko kostua zuen.

Horrek kalean sortu zuen zalapartaren ondorioz, hasiera batean, dirua soberakinetik bakarrik kendu zela esan zen, eta horrek ez zuela esan nahi erosketa egingo zenik. Hala ere, denok genekien koadro hori erosiko zela. Martxoaren hasieratik dago museo biltegian gordeta, eta oso ondo zainduta, gainera. Orain, *Merkatua Durangon* lana ikusgai egoteko momentua heldu da. Horrekin batera, Durangoko Arte eta Historia Museoa artista asturiarren beste bederatzi margolan ere egongo dira. Esan behar da margolana oso polita dela, eta, gainera, sozialistok proposatu genuela bere garaian artistak, Durangorekin zuen harremanagatik, kale bat izatea.

Maiatzaren 20an izan da inaugurazioa eta Alderdi Sozialistako kideok ez gara bertaratu. Izan ere, bizi dugun une ekonomiko delikatuarekin, ez dugu uste orain denik artelana eskuratzeko une egokia. Koherenteak izan behar gara eta argi izan denak ez duela balio argazki baterako.

Horrek ez du esan nahi ez garea joango erakusketa bisitatzera eta ez ditugula durangar guztiak bisita egitera animatzen. Museoako arduradunak antolatzen duen guztian egiten duen ahalegina eta bere dedikazioa ezagututa, ez dugu zalantzarik arrakastatsua izango dela.

Durangaldea asteen

Dagoeneko eman daiteke izena Elorrion antolatu duten Uztaila Oparo programan

Elorrio | Beste urte batez Elorrion Uztaila Oparoa programa antolatu dute. Egitasmo honek herriko hainbat erakundek antolatzen duen zenbait ekintza batzen du: zaldian ibiltzea, ingeles modu dibertigarrian ikastea eta kirola egitea, besteak beste. Maiatzaren 28ra arte dago izena emateko aukera.

443 milioi euroko plana aurkeztu dute enpresa txiki eta ertainak bultzatzeko

Abadiño | Eusko Jaurlaritzak 433 milioi euroko plana ipiniko du martxan Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako enpresa txiki eta ertainen "lehiakortasuna" eta "modernizazioa" bultzatzeko. Planaren Durangaldeko aurkezpena Mankomunitatearen eskutik egin dute Abadiñon. 433 milioi euroen %40 Ikerketa, garapen eta berrikuntza programetara bideratuko dute.

Osakidetzak "lehenbailehen" esleitu gura du Matienarako pediatria berriaren plaza

Abadiño | Maiatzaren 14an, Mikel Garaizabal alkatea eta Javi Crespo alkateordea Barrualde-Galdakao ESiko arduradunekin batu ziren, Matienako pediatria zerbitzuagaz jarraitzea eskatzeko. Abadiñoako udal iturrien arabera, Osakidetzak "lasaitasun mezu" helarazi zien Garaizabali eta Crespori. "Pediatria berri bat lehenbailehen esleitzea da euren aurreikuspena, eta horretarako gestioak egiten hasita daudela baieztatu digute", azaldu du Garaizabalek.



Domekan, maiatzak 23, artisau eta sortzaileen azoka egingo dute Arrazolan

Atxondo | Eixu Artisau Elkarteak eta Amillena Arrazolako bentak antolatuta, II. Artisau eta Sortzaileen Azoka egingo dute maiatzaren 23an. Antolatzaileek azaldu dutenez, azoka 10:00etatik 15:00etara egongo da zabalik, eta bertaratzeko gonbita egin diote jendeari. "Gogo handia ipini diogun ekintza kultural honetara parte hartzera gonbidatzen zaituztegu, artisautza ikusi, sentitu eta gozatzeko", azaldu dute antolatzaileek. Azoka girotuta egongo da. 12:30ean Elorrioko Nahiota bikoteak kontzertua eskainiko du.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarateak barne).

hitz

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

liburudenda

#salduenak



ARROZ UREZ
Mikel Antza
(Txalaparta)



BIZIA MIN
Jon Ander Urkiaga
(Luces de Gálago)



MIÑAN
Amets Arzallus & Ibrahim Balde
(Susa)



AITAREN ETXEA
Karmelo Jaio
(Elkar)



'Ederriko'
Karmelo Uriarte
(Labayru)



Herriko gudarien kalea, 10 behe - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

BURUARI KLIK!



LEKUZ KANPO

Beheko irudian lekuz kanpo dauden zazpi objektu daude. Zeintzuk?
Zenbat pertsona zenbatzen dituzu?



DIFERENTZIAK

Topatu zazpi diferentziak.










Zein itzal dagokio goiko irudiari?

ITZALAK




ZER ORDU DA?


Marrazu erlojuetan digitalean dauden orduak.



DOMINOA


Marrazu dagokion irudia lauki zurietan.





PUNTUAK LOTU

Lotu zenbakiak marra bakar batez eta irudi osoa lortuko duzu. Gero margotu gura duzun moduan.




SAILKATU

Sailkatu beheko instrumentu hauek dagokien kategorian.

Perkusioa





Haizea

Haria



ESAERA ZAHARRA

Bete laukiak dagokien letragaz behean daukazu alfabetoari jarraituz.



A B D E F G H I



J K L M N Ñ O P



R S T U X Y Z



FISIKAREN ORDUA

Zein helduko da lehenago lurrera? Sagarra ala luma?



Durangaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

Batu Anbotoko whatsapp taldera



Bidali alta
688 635 041
telefono zenbakira

*** Izan zaitez berriemaile ere.**
Bidali zure argazki eta bideoak

 **anboto**



'Lurrun minez'

ANTZERKIA **ELORRIO** :: Maiatzak 21

Desira eta beldurra, drama psikologiko eta sexual batean

Lurrun minez obrak hiru maritxu-
ren arteko drama psikologiko,
sozial eta sexuala kontatzen du
antzezlanaren sinopsiak azal-
tzen duenez. Gaizka Chamizok,
Jon Koldo Vazquezek eta Pelayo
Serranok osatzen dute hiruki
arrosa. Galder Perezek sortu eta
Olatz Gorrotxategik zuzendu-
riko obra da eta Arriolan tau-

laratuko dute gaur, 19:00etan.
Ezusteko topaketa Daviden Errei-
nua izeneko gizonzkoen sauna
batean gertatuko da, ustez ano-
nimatuan gertatzen den sexu
trukerako espazioan. Desirak eta
beldurrak, alkohola eta pasioa,
ezinegona eta nahiak, izerdia eta
lurruna, gorputzak eta arimak
nahastuko dira bertan.

Maiatzaren 21ean

IURRETA antzerkia
'Los olivos pálidos' (La Red Teatro), 19:00etan, Askondoko aterpean.

ZORNOTZA antzerkia
'El salto de Léucade' (ESM Teatro), 19:00etan, Zornotza Aretoan.

Maiatzaren 22an

ABADIÑO musika
Matilda, 19:00etan, Errota kultur etxean.

BERRIZ musika
Ikarass + Arima, 18:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO musika
'Oholtzaratu': Atuen + Animaliek + Paulan Taldie, 11:00etan, Sorginola gaztetxean.
26:10 + Ane eta Kimetz + Laru, 16:30ean.

ZORNOTZA kontzertua
'Espazioa, txistua, denbora' (Aritz Labrador), 19:00etan, Zornotza Aretoan.

Maiatzaren 23an

ABADIÑO antzerkia
'Miss Spein' (Aroa Blanco eta Aitor Arabiourrutia), 19:00etan, Errota kultur etxean.

ATXONDO azoka
Artisau azoka, 10:30etik 15:00etara, Arrazolan.
Musika zuzenean:
Nahinota, 12:30ean, Amillena bentak antolatuta.

IURRETA musika
Ruper Ordorika, 19:00etan, Aita San Migel plazan.

MAÑARIA azoka
Azoka, 10:00etan, Herriko plazan.

ZALDIBAR dantza saioa
Dantza Saioa, Liburutegi Zaharrea. Helduak 11:00etan, eta familiak 12:00etan. Berbalagunen eskutik. Izen-ematea maiatzaren 21era arte: zaldibarkoberbalaguna@gmail.com e-postara idatzita edo 688 72 29 89 telefonora deituta.

Maiatzaren 26an

ATXONDO berbaldia
Goienere: Energia berriztagarrien sorkuntza eta kontsumo kooperatiboa, 18:00etan, Arrazolako Amillena bentan.

ELORRIO kirola
Nagusientzako jarduera fisikoa, 11:00etatik 12:30era, Herriko plazan.

ZALDIBAR topaketak
Familia topaketa, Gaztelekuan. LHko 6. mailakoak 19:15ean eta DBHko 1ekoak 19:45ean.

Maiatzaren 27an

ZORNOTZA zine klasikoa
'Passport to Pilimco' filma, 19:00etan, Zornotza Aretoan. Jatorrizko bertsiotan.

Maiatzaren 28an

ELORRIO ikuskizuna
'Manifestua' (Ekida kultur ekimen sozialista), 19:00etan, Arriola antzokian.

IURRETA narrazioa
'El coso' helduentzako ahozko narrazioa (Diego Magdaleno), 19:00etan, herri bibliotekan.

Maiatzaren 30era bitartean

ABADIÑO erakusketa
Jose Mari Gastelu-Urrutiaren margolanak, Errota kultur etxean.

DURANGO erakusketa
'Anzola: Robert Capa euskalduna' (Mauro Saravia), Arte eta Historia Museoan.

DURANGO erakusketa
Andres Nagelen artista-liburuak, Arte eta Historia Museoan. Museoan Nazioarteko Eguna ospatzeko antolatutako erakusketa.

Zinema

:: Berriz KULTUR ETXEA

• **Godzilla vs Kong**
barikua 21: 17:00
domeka 23: 17:00

:: Elorrio ARRIOLA

• **Hijos del sol**
zapateria 22: 19:00
domeka 23: 19:00
astelehena 24: 19:00

:: Durango ZUGAZA

• **Mia y Moi**
barikua 21: 19:30
zapateria 22: 17:45/20:00
domeka 23: 17:45/20:00
astelehena 24: 18:00/20:15
martitzena 25: 19:30
eguztzena 26: 18:30

• **Poliamor para principiantes**
barikua 21: 19:30
zapateria 22: 18:30/20:30
domeka 23: 18:30/20:30
astelehena 24: 18:00/20:15
martitzena 25: 19:30
eguztzena 26: 18:30

• **Spiral: Saw**
barikua 21: 19:30
zapateria 22: 18:30/20:30
domeka 23: 18:30/20:30
astelehena 24: 18:00/20:15
martitzena 25: 19:30
eguztzena 26: 18:30

• **Cascarrabias. El cuento de un mago**
zapateria 22: 16:30
domeka 23: 12:00/16:30


• **Félix y el tesoro de Morgaa**
zapateria 22: 16:30
domeka 23: 12:00/16:30

• **Maya erlea. Ezti jokoak**
domeka 23: 12:00

:: Zornotza ARETOA

• **Bajo las estrellas de París**
domeka 23: 19:00
astelehena 24: 19:00

• **Earwig y la bruja**
domeka 23: 12:00





4. atala 'Martxa'

Aktoreekin ez dago
fidatzerik, garbi dut.

'TTAP' ALDIZKARI
DIGITALEAN

HAU EZ
DA
NIRETZAT

Beste guztiontzat den websaila.

ttap

Irakurri, ukitu,
ikus, entzun.

DOAN
Euskarazko aldizkari digitala, deskargatu astero zure
mugikor edo tabletan.

Hemendik ere deskarga dezakezu: **ttap.eus**

DESKARGATU
Play Store-n

DESKARGATU
APP Store-n



Instalatu orain!

“Kontzertuak aukera ona dira abestiak zuzenean geruzarik geruza zelan eraikitzen ditugun ikusteko”

Arimak 'Biluztasunez jantzita' disko berria aurkeztuko du Berrizko Kultur Etxean Ikarass durangarrekin batera; zapatuan izango da kontzertua, 18:00etan



Gontzal Bilbao, Paule Bilbao eta Josu Gonzalez..

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Paule Bilbaok (ahotsa eta gitarra), Josu Gonzalezek (baxua) eta Gontzal Bilbaok (bateria) osatzen dute Arima hirukotea. Talde emankorra da. Urte biko tartean, 'Metamorphosis' eta 'Biluztasunez jantzita' EPak kaleratu dituzte Bonberenea Ekintzak zigiluagaz, eta dozenaka kontzertu eskaini dute; izurriteak kontzertuen dinamika moztu arren, denbora tarte hori baliagarria izan zaie bigarren lana konposatzeko. Etenaldiaren ostean, Azkoitia (Gipuzkoa) hasi dute bira, joan den asteburuan; Berrizko Kultur Etxean joko dute zapatuan, Ikarass talde durangarraz batera, 18:00etan. Berrizko kontzertuaren ondoren, Tolosan, Gasteizen eta Gernikan joko dute, besteak beste. Taldeko Paule Bilbaok erantzun die gure galderei.

Gogotsu zaudete kontzertuetarako? Jakina! Denbora dezente daramagu zuzenekoak prestatzen, abesti

zerrenda berri batez, eta aurreko zuzenekoaren dinamika eta egitura apur bat aldatzen. Gogo handia dugu jendeagaz egoteko eta berriro ere kontzertuen erritmo hori berreskuratzeko.

Denbora dezente daramagu zuzenekoak prestatzen, abesti zerrenda batez eta hauen dinamika eta egitura aldatzen

Asko kostatu zaizue abesti berriak zuzenekoetara moldatzea?

Berez, abestiak konposatzekoan, ordena bati jarraitzen diogu: normalean, *looper* edo soinu pedal batez gitarra geruzak sortzen ditut; gero, melodia edo oinarritzko gitarra *riff* bat dudanean, letrak eta ahotsa sartzen ditut, eta gero baxuagaz eta bateriagaz borobiltzen ditugu abestiak. Horixe

da oinarria, eta kontzertuetan ere horrela egiten dugu. Kontzertuak aukera ona dira abestiak geruzarik geruza zelan eraikitzen ditugun ikusteko.

'Biluztasunez jantzita' diskoak soinu trinkoagoa du. Apropos bilatu duzuen zerbait da?

Denbora gehiago daramagu elkarrengaz jotzen, eta, zelanbait, sendotu egin da soinua, bai. Disko honek asebate egin nau; aurrekoan zerbait falta zela uste dut, baina oraingoa helduagoa da, eta garapena atzeman daiteke bertan.

Doinu aldetik ere, bestelako ñabardurak atzeman daitezke.

Esango nuke talde lez ideiak argiago ditugula. Estilo aldetik desberdintasun bat igartzen da, baita sonoritate eta letren aldetik ere. Aurreko diskorako, talde klasikoaren eraginean oinarritu nintzen, eta azkenaldian bestelako musika entzuten aritu naiz, eta horrek eragina izan du konposatzerako orduan.

Talde klasikoak diozu. Zeintzuk liralteke zuretzat talde klasiko horiek?

Klasiko esatean, nerabzarotik entzun ditudan taldeak esan gura nuen: Sonic Youth, Nirvana, Pixies, PJ Harvey... Gero, *shoegaze*, *post rock* edo *noise* doinuetan sakondu dut, eta hor Slowdive

Nerabzarotik entzun ditudan taldeen eragina nabarmena zen 'Metamorphosis' diskoan: Sonic Youth, Nirvana, Pixies, PJ Harvey...

aipatuko nuke nire gustuko talde lez. *Emo* edo *post hardcore* aldetik, oster, Touché Amoré, La Dispute edo My Bloody Valentine aipatuko nituzke.

Oraingoa ere Bonbereneara jo duzue grabatzera.

Txapek [Karlos Osinaga] soinua ulertzeko duen modua oso aproposa da gure estilorako. Gainera, berez, hartu-eman estua daukagu eta oso erraz lan egiten dugu elkarrengaz. Aste oso bat egon ginen bertan. Abestiak nahiko amaituta eraman genituen, baina han azken ukituak eman genizkien.

Shoegaze doinuek berezkoa dute iluntasun bat. Egun bizi dugun egoerak erraztu egiten du konposatzea?

Egia esateko, konposatzen dudana nahiko iluna irteten zait beti. Ez dakit zergaitik, baina horrela da. Iazko udaberriko itxialdian egin nituen lan honetarako konposaketa lanak; ihes egiteko nire modua izan zen. Etxean dugun lokalera jaisten nintzen, eta bertan sortu nituen abesti guztiak; gero, talde moduan borobildu egin genituen. Egoera hartatik irten eta neure buruagaz konektatzeko beharrezkoa nuen. Nik uste dut musika eta artea oso baliagarriak direla horretarako, norberaren zaugarritasun, sentimendu eta horiekin konektatu eta azaleratzeko.

Diskoaren grabazioan Sara Zozayak kolaboratu du, eta zuzenekoak ere euskaraz ezohikoagoak diren proposamenak batzen dituzten taldeekin egingo dituzue, Abereh, Ro, Sofa, Lepora... Eszena aldatzen ari da?

Nik uste dut euskaraz gehiegi landu ez den estiloa dela gurea. Proposamen modura, interesgarri egiten du horrek, eta horrela beti egiten zaio ekarpena euskal kulturari ere. Baina bai, proposamen interegarriak dituzten talde berri asko dago, eta orokorrean esango nuke musika desberdina egiten duten talde horien artean sartzen garela gu ere. Gainera, gure artean ia guztiok ezagutzen dugu elkar, eta horrelako familia edo talde bat sortu dugu, eta elkarrengaz jotzean sortzen den zera hori oso polita da.

EP formatuan kaleratu duzue lan hau ere. Apropos egindako aukeraketa da?

Nik betidanik izan dut gustuko EPak kaleratzea, pilula txikiak. Gaur egun musika kontsumitzeko modua oso azkarra da, eta esango nuke entzuleak berak gehiago disfrutatzen duela horrela, lanak pilula txikietan kaleratuta.

Talde lez orain urte bi hasi ginen kontzertuak eskaintzen eta diskoak kaleratzen. Eta zortea izan dugu, kontzertu asko irten zaizkigulako denbora honetan, eta baita orain ere. Eta hori eskertzekoa da, kultura oso txarto tratatzen ari diren sektorea izaten ari delako.

Regoyosen 'Merkatua Durangon' ikusgai Arte eta Historia museoan

Regoyosen 9 lan batzen dituen 'Durangoko begirada inpresionista' ikusgai dago gaurtik

MARGOLARITZA • A.M.

Darío de Regoyos margolari asturiarraren (Ribeseya, Espainia, 1857-1913) bederatzi lan batzen dituen erakusketa ikusgai egongo da gaurtik aurrera. Besteak beste, *Merkatua Durangon* koadroa egongo da ikusgai. Margolariaren lan hau 1907koa da eta Andra Mariko elizpea "bizi-bizi" erakusten du. "Garrantzitsua da *Merkatua Durangon* koadroa Durangon egotea ikusgai, baina ez genuen hor besterik barik ipini gura; jendea Regoyosen eta bere lanen testuingurua hurbildu

'Merkatua Durangon' artelanaz gainera, Regoyoren beste zortzi obra erakutsiko dituzte



'Merkatua Durangon' koadroaren argazkia.

gura genuen. Nor zen Regoyos eta zergaitik bizi zen Durangon, besteak beste", azaldu du Garazi Arrizabalaga Arte eta Historia museoko zuzendariak. "Bere koadroetan sasoi hartako Iurretan, Elorrio eta Urkiola ikusten dira, adibidez", gaineratu du.

Helduentzat bisita gidatuak eta umeentzat tailerrak egingo dituzte ekainean

Ekintzak ekainean

Ohikoa den moduan, erakusketagaz batera ekintza osagarriak antolatuko dituzte museoan. Ekainetik aurrera, bisita gidatuak egingo dituzte helduentzat, eta baita tailerrak ere umeentzat. Katalogoa ere osatu dute.

Zapatuan Oholtzaratu! jaialdia egingo dute Sorginolan

Durungaldeko sei musika taldek parte hartuko dute musika jaialdian, goizeko eta arratsaldeko emanaldietan

MUSIKA • A.M.

Klak! dinamika Oholtzaratu! musika jaialdia antolatu du maiatzaren 22rako. Durungaldeko sei musika taldek parte hartuko dute bertan. Antolatzaileen esanetan, taldeetako batzuentzat lehenengo kontzertua izango da zapatukoa. Sorginolan horrelako ekimenak egin ahal izatea ere nabarmendu dute. Kontzertuak emanaldi bitan egingo dituzte. Goizean, 11:00etan, Paulan Taldie, Atuen eta Animaliek taldeek joko dute.

Eta 16:30ean hasita, 26:11, Ane eta Kimetz, eta Laru taldeek eskainiko dute zuzeneko. Esandako moduan, talde hauetako batzuentzat euren ibilbideko lehenengo kontzertua izango da. Horrelako ekimenekin, gazteak musikara hurbiltzeko helburua dute. Kontzertuetan osasun neurriak beteko dira.

1. eta 2. batxilergoko gazteen artean euskararen erabilera soziala bultzatzeko erronka du Berbaroren Klak! dinamika.



26:11 taldea.

Gai librean

Sapere aude

Ausart gaitezen jakitera. Pentsamendua bera jada baldintzatu dugu. Nietzschek zioen: artaldea. Alienazioa, Marxek. Berreskuratu beharreko kontzeptuak biak, inoiz puri-purian egon ez badira.

Ez naiz neure arrazionaltasuna erabiltzera ausartu. Descartesek lagunduko dit egiten: lehendabizi, deseraiki buruko ideiak. Eta ausartu neure kabuz eraikitzen. Eta izan ausarta.

Ala eguneroko berri emankizunaren arabera erabakiko dut Astra Zenecaren beldur izan ala ez?

Informazioa da armarik potenteena. Eta informazio guztirako sarbidea izan dezadan baliabide guztiak emango dizkizazu, sare sozialetan ni bezalakoekin eta desberdinekin elkar trukatu ditut iritziak, administrazio guztiek gardentasun printzipioaren arabera jokatzen dutela bermatuko didazu. Askea naizela sinestaraziko didazu. Baliabide



Josune Aranguren Zatika
Filosofoa

guztiak ditudala nire eskubideak gautzatzeko. Sinestaraziko didazu. Libre eta erabakiduna. Entelekia.

Hori guztia sinestaraziko didazu eskubide guztiak kendu bitartean. Eskubide guztiak kentzen dizkizazu baina neure onerako dela esango didazu.

Ala eguneroko berri emankizunaren arabera erabakiko du Astra Zenecaren beldur izan ala ez?

Baina ausarta bazara, kriminalizazioa dator. Ondo programatua. Sorgina zarela esango dizute. Trumpen antza duzula eskubideez ai zarenean. Eta barregarriago gera nadin, eredurik barregarrienarekin elkarrizketa erretransmitituko dute, nire pentsaera kantari drogazale ero horrenarekin parekatuz.

Pantailaren aurreko zein atzeko tertuliak berberak izango dira ostean: iritziemaile berekoak batasun orgasmiko batera helduko dira. Zugarramurdiko emakumeek ere sorgin ez zirela aldarrikatu zuten hilketa unera arte. Haietako inork jarritako sorgin izenez ezagutzen ditugu: beste erreinu bateko soldadu eta inkisidoreek ezarritakoarekin. Durango 2021.

Beste behin gure osasunaren aurretik negozioa dagoen zalantzaren aurrean gara. Heriotzaren beldurrak sapere aude-ri irabazi dio Hirugarren Mundu Gerran.

Indibidualista edo errudun izendatua izatearen beldurrak irabazi egin dio sapere aude-ri.

Lanetik kaleratua izateko arriskua aurrean, askatasuna mugatzearen amen.

Osasuna eta askatasuna uztartu behar dituen lege egitasmoen aurrean, sapere aude.

Mendilibar, Clemente, Iturregi... futboleko euskal profesionalik onenekin ikasteko aukera Durangon

Euskal futboleko erreferentziakoak diren profesionalekin 'Euskal futbola, oinarritik gailurrera' jardunaldiak antolatu dituzte

FUTBOLA • J.D.

Euskal futbolak dituen profesionalik prestigiotsuenetariko asko Durangotik pasatuko dira datorren astean. Kirolenek, Kirol Irakaskuntzen Ikastetxe Publikoak, antolatutako jardunaldietan izango da, Durangoko Udalaren eta Jaurlaritzaren laguntzagaz.

Jardunaldiak hiru egunetan banatuko dituzte, maiatzaren 26tik 28ra. Denak San Agustin Kulturgunean izango dira. 'Euskal futbola, oinarritik gailurrera' izena eman diote ekimenari eta euskal futbola askotariko ikuspegietatik landuko dute; gizonen zein emakumeen euskal selekzioa, formakuntza, euskara futboleko...

Gai horiek guztiak arloko profesionalen berbaldi edo mahai-inguruekin landuko dituzte. Lehen mailako euskal taldeen entrenatzaileak etorriko dira: Jose Luis Mendilibar, Jagoba Arrasate, Natalia Arroyo eta Iraia Iturregi, beste askoren artean.

Jardunaldiak futbol munduan sakondu gura dutenei bideratuta



Ekimeneko antolatzaileak eta laguntzaileak Arripausuetan egindako aurkezpenean.

daude. "Guk gure klaseetan ematen dugunaren jarraipen bat izatea gura dugu, baina irakasleak gu izan beharrean, arloko profesionalak izango dira", adierazi du Iabi Requero Kiroleneko futbol saileko arduradunak.

Sarrerak Kutxabaneko kutxazainetan eskuratu daitezke, eta

baita San Agustin kulturgunean ere. Kiroleneko ikasle eta irakasle ohientzat zein entrenatzaile txartela dutenentzat %50eko deskontuak daude. Horrela, hiru eguneko bonua 60 euro izango da; arratsaldeko ekitaldietarako bonua 40 euro, eta goizekoetarako 30 euro.

Sarrerak soberan geratzen badira, egunean bertan ipiniko dituzte salgai: 30 euro egun osokoa eta 20 euro egun erdikoa.

Jardunaldien aurreko egunean, martitzenean, *The Pass* filma eskainiko dute San Agustinen, 19:00etan, eta sarrera doakoa izango da.

EGITARAUA

MAIATZAK 26

- 16:30: 'Entrenamendutik lehiaketara'. Marcellino Garcia Toral
- 18:30: 'Emakumezkoen futbol profesionala'. Hizlariak: Natalia Arroyo (Reala), Iraia Iturregi (Athletic), Iker Dorronsoro (Eibar), Dafne Treviño (Alaves) eta Cesar Muniain (Osasuna)

MAIATZAK 27

- 10:00: 'Ideiatik kontzeptura' Hizlaria: Jose Luis Mendilibar
- 12:00: 'Osasunaren nortasuna' Jagoba Arrasate, Braulio Vázquez
- 16:30: 'Asteko lan prestaketa' Hizlaria: Gaizka Garitano
- 18:30: 'Euskara goi mailako kirolean'. Hizlariak: Liga Santanderreko jokalaria

MAIATZAK 28

- 10:00: 'Kirol zuzendaritza' Hizlaria: Roberto Olabe
- 12:00: 'Futbolistok'. Zuhaitz Gurrutxagaren monologoa
- 16:00: 'Emakumeen euskal futbola eta euskal selekzioa' Hizlariak: Iñigo Juaristi
- 17:15: 'Euskal selekzioa' Hizlaria: Jabier Clemente
- 19:00: 'Harrobiko lana'. Hizlariak: Iban Fagoaga, Bittor Llopis, Sergio Francisco, Imanol de la Sota eta Cesar Monasterio

Gurutze Fradesek munduko txapelketara sailkatzea du helburu Tulsako Ironmanean

IRONMANA • J.D.

Gurutze Frades iurretarra Tulsa hirian (Oklahoma, AEB) dago aste hasieratik. Han lehiatuko den Ironmanean parte hartuko

du domekan. Helburu batez arituko da: munduko txapelketara sailkatzeko jokoan egongo diren hiru txarteletariko bat eskuratzea.

Ironmanetan parte hartzen duten triatloiarientzat Kona munduko txapelketa (Hawaii) izaten da urteko proba nagusia, eta Fradesek hainbat urte darama hitzordu horretarako sailkatzen.

Baina aurten gatz dago sailkapena. Lasterketa gutxi dagoenez, munduko onenek ez dute hutsik egiten hitzorduetara. Horixe gertatuko da Tulsako proban: maila handiko parte hartzaile asko batuko dira hiru txarteletariko bat eskuratu guran. Proba horren ondoren, plaza gutxi geratuko dira banatzeko. Beraz, domekakoa ez da azken aukera izango, baina bai azkenetarikoa Imedusa babesle duen eta Mugarra Triatloi Taldean dabilen iurretarrantzat.

Sierra Nevada hiru aste eman ditu entrenatzen asteburuko Ironmana prestatzeko, eta "indartsu" dagoela dio.

Honako hauek dira Ironman bateko distantziak: 4 kilometro igerian, 180 bizikletan eta 42 korrika.



Gurutze Frades entrenamendu saio batean asteburuko hitzordua prestatzen.



Amorebietako jokalaria Linaresen kontrako garaipena ospatzen. @SDAMOREBIETA

Amorebieta Bigarren Mailara igo daiteke zapatu honetan

Bide luzea izan da, baina helmuga berbertan dago. Bihar Badajozen kontra jokatuko den partidua irabazten badu, Bigarren Mailara igoko du, klubaren historian lehenengoz

FUTBOLA • J.D.

Bigarren B Mailatik Bigarren Mailara igotzeko *play off*ak Extremaduran jokatzen ari dira. Beraz, Amorebietari hango talde baten kontra aritzea egokitu zaio, Badajozen aurka hain zuzen ere. Badajoz klub indartsua da eta hasieratik igotzeko faboritoen zerrendan zegoen. Amorebieta ez da faborito izango,

baina Iñigo Velez de Mendizabalek gidaturiko gizonen behin baino gehiagotan erakutsi dute ez direla erronken aurrean kokiltzen. Joan zen asteburuan, *play off*etako lehenengo kanporaketan, Andaluziako talderik onena zen Linares kluba kanporatu zuten (2-1), Mikel Alvarok eta Iñigo Orozkok sarturiko gol banari eskerrak.

Jokaldia

Tabirako

Denok egongo gara jakitun Tabirakoren egoerari buruz. Zuzendaritza taldearen amaiera dator. Oraindik ez dago ordezkariarik aurkeztuta. Ez dago inor klubaren zuzendaritza hartuko duenik.

1960. urtean sortutako kluba gaur egun desagertzeko arrisku larrian dago. Bai, horrela da. Hurrengo egunetan zerbait zehatza eratzten ez bada, bertan behera geratuko da. Entzun asko egiten da: bata aurkeztuko dela, baina orain besteren bat ere berbetan dagoela aurkezteko, hori dela eta batak ezetz dino... Horrela ibili gara eta, azkenean, ezer ere ez. Kirol arloan sartuta daudenek (gaudenok) ere hartuko dutela kluba eta bertatik zuzenduko dela ere entzun dut. Hori ere ez da egia. Klub batean kirol arloa eta kudeaketa arloa ezin dira alde



Unai
Zamalloa Zubiaurre
Saskibaloia

"Denok egongo gara Tabirakoren egoeraren jakitun. Zuzendaritza taldearen amaiera dator. Ez dago inor zuzendaritza hartzeko"

"1960. urtean sortutako kluba gaur egun desagertzeko arrisku larrian dago. Bai, horrela da"

baten buruan egon. Tabirakoren neurriko klub batean horrela aritzeak azkena dakar.

Badira kirol arloan epe labur eta ertainera lantzeko prest daudenak, baina hori guztia bateratu, landu eta indartzeko klubaren arlo ekonomiko, antolaketa, arlo soziala,... kudeatzeko eta lantzeko zuzendaritza talde indartsu bat egon beharko litzateke. Hemendik eta epe ertainera gure kluba indartsu eta bideratuta egoteko. Hemendik denoi egiten dizuet eskaera, animatu eta denon artean landu eta indartu dezagun. Aurrera Tabirako!

Azken hitzak Zornotza Saskibaloio Taldearentzat dira. Beste behin Urrezko Ligara igotzeko borrokan eta denboraldi handi bat egiten ari da. Urte osoan egindako lan onaren saria da. Zorionak Zornotzako klubari eta bere zaleei! Aurten ere, beste lorpen itzel bat! Aurrera!

ZATOZ GU
EZAGUTZERA
NAHI
DUZUNEAN
HAURTZAINDEGIA
0, 1, 2 URTE

ESKATU
HITZORDUA:
94 681 00 50



jsu
Jesuitak

Durango

KRISTAU ESKOLA

Biharko ametsak, gaurko erronkak

Q

Urrezko Q ziurtagiria

94 681 00 50

sanjose@durangojesuitak.org
www.durangojesuitak.org

DURANGALDEI



Santa Apolonia ermita eta Santutxu iturria

Urkiolako santutegitik Otxandiorako norabidean daude ermita eta iturria. Gas-teizerako galtzada zaharraren aldamenean. Iturriko ura miragarria dela diote. Ur apur bat ahoan hartu, ermitari hiru buelta eman, eta ura ermita barrura botaz gero, akabo hagi-netako minok. Horixe dio kondairak. Fedekristauaren arabera, Santa Apolonia dentisten zaindaria da.

KO TXOKOAK!

Ibaizabal eta Andra Mari eliza

Zornotzako Andra Mari eliza Ibaizabal ibaiaren ertzean dago. Tenplua XVI. mendearen bigarren erdialdean eraikitakoa da eta barrualdeko erretaulak ezaugarri artistiko bereziak ditu: Bizkaiko ezaugarri berezietako batzuk, rokoko estiloko apaingarriak ditu eta. Elizak Zornotzako herria zaintzen du erreka ertzetik.





Eskelak jartzeko: 946 816 558
edo anboto@anboto.org

Eskela mota guztiak

- Anboto paperean + anboto.org-n: 100€ (Anboto txartela dutenentzat 90€)
- Paperean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)
- Webgunean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)

Zorion Agurrak ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENKO 14:00AK ARTEKO EPEA

GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA
Ermodo, 11. DURANGO / Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia



Zorionak, **Ekhi!** Maiatzaren 20an 6 urte egin zenituen. Moxuak etxekoan partez!

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu.** Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.



Zorionak, amama! Muxu handi bat familiako guztion partez! Asko maitte zaittugul!



Liherrek maiatzaren 18an urteak egin zituen. Zorionak gurasoen eta aitite-amamen partez.

Botikak

BARIKUA, 21 - 09:00-09:00	09:00-22:00
DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA	ASTELEHENA 24 - 09:00-09:00
09:00-22:00	IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA
SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA	09:00-22:00
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
ZAPATUA, 22 - 09:00-09:00	SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA
SARRIA Sasikoa 17, DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA	MARTITZENA, 25 - 09:00-09:00
09:00-13:30	GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO
GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO	RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA
DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO	09:00-22:00
UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
BAZAN DIAZ Urbarri 5 - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO	EGUAZTENA, 26 09:00-09:00
JAIO-ABENDIBAR Errekakale 6. - ELORRIO	IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA
FARMAZIA MATIENA Trañabarren 15. - ABADIÑO	RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA
RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA	09:00-22:00
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA
GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
09:00-14:00	EGUENA, 27 - 09:00-09:00
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA	SARRIA Sasikoa 17, DURANGO
09:00-22:00	RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	09:00-22:00
SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
DOMEKA, 23 - 09:00-09:00	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA	

Eguraldia

ZAPATUA 🌧️ 14° / 8° ☁️	ASTELEHENA 🌧️ 17° / 8° ☁️	EGUAZTENA 🌧️ 16° / 8° ☁️
DOMEKA 🌧️ 18° / 7° ☁️	MARTITZENA 🌧️ 15° / 8° ☁️	EGUENA 🌧️ 19° / 8° ☁️

clínica dental hartzklinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA • INPLANTOLOGIA - KIRURGIA
ORTODONTZIA KONBENTZIONALA ETA IKUSEZINA • ODONTOPEDIATRIA - PADI
HORTZ-ESTETIKA • HORTZ-ESKANERRA

{ Muruetatorre, 2C blokea, beheka - 48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - ucdental@gmail.com

RPS: 145-13

“Emakume bakoitzaren onena ateratzea da Lookiero-ren misioa”

Lookiero-k 'Personal shopper' zerbitzua eskaintzen du sarean. Katalin Madariaga durangarrak sorreratik lan egiten du bertan, marketing arloan, Bilbon duten bulegoan



Katalin Madariaga Amantegi

Lookiero-n lan egiten du
DURANGO | 1994

DURANGON • AITZIBER BASAURI

Katalin Madariaga gradu amaierako lana egiteko sartu zen Lookiero-n. Sei urte joan dira harrezkero. Durangarra Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntzan (LEINN) graduatuta dago, eta, dioenez, ez da modaren jarraitzaile sutua. Lookiero-ren sorreran bost lagun ziren lantaldean. Gaur egun, 300 pertsona dabilta lanean bertan, eta zazpi herrialdetara zabaldu da.

Bezeroa ezagutu barik, Lookiero-ko 'personal shopper'-ak zer hartzen du kontuan arropa aukeratzeko?

Webgunean profil bat sortu eta galdetegi bat bete behar da: dugun ile eta begi kolorea, gogoko dugun estiloa bai lanerako bai egunero-

koan erabiltzeko, neurriak, aurrekontua... Gainera, gura den guztia partekatu daiteke 'personal shopper'-agaz. Hori guzti hori aztertu ondoren, bost jantzi aukeratu ditu kaxa osatzeko. Ohar bat ere bidaliko du, zergaitik aukeratu dituen eta zelan konbinatu azaltzeko. **Ez da erraza izango asmatzea. Arropa asko etortzen da bueltan?**

Bai, etortzen da. Hala ere, gehiago da erosten dena. Anekdotan moduan esan behar dut bueltan etorritako arropekin batera sorpresa batzuk ere agertu direla: telefonoa, telebista-agintea, ezkontza-eraztuna... Gatzena lehenengo kaxa osatzea izaten da beti, lehenengo zita lez. Apurka elkarregaz hartu-eman

sortzea da gakoa. Baliteke lehenengo aldian batere ez asmatzea. Baina batzuek 30 kaxa ere eraman izan dituzte. Orduan ezagutzen da be-

Bueltan etorritako arropekin sorpresa batzuk ere agertu dira: telefonoak, ezkontza-eraztuna...

zeroa. *Feedback*-a egotea oso garrantzitsua da. Zenbat eta informazio gehiago trukatu, orduan eta hobeto osatuko dugu kaxa. Argazkiak ipini daitezke sarean, sare sozialak partekatu...

Zein izan liteke Lookiero-n bezero?

Batez ere 30etik 50 urtera arteko emakumea; askotan, ama izandakoa (gorputza aldatzen da, ez dute lehen zuten denbora librerik...). Horrez gainera, erosketak egitea gustuko ez dutenak edo ikusmin soilagaitik probatzen dutenak ere badaude. Kaxa bakoitzaren atzean istorio bat dago. Argi dago emakume batek ez duela 'personal shopper'-ik behar bere bizitzan. Baina momentuko egoerak edo bizipenek bultzatuta, baliteke laguntza gura izatea bere burua ondo ikusteko, ondo sentitzeko; beste estilo batzuk probatzeko edo konfort-zonatik irteteko ere bai.

Hori da zuen helburua?

Emakume bakoitzaren onena ateratzea da gure misioa. Denok gura dugu geure burua ondo ikusi, bakoitza bere estiloan, eta oso garrantzitsua da jantzita daramagunak ondo eta seguru sentiaraztea. Horixe da gure ekarpena. Eguneroko moda da gurea, oso hurbilekoa. Ez dira look pentsaezinak.

Ez naiz modaren jarraitzaile sutua, ezta tendentzia zalea ere. Nire gustuetara, nire egunerokora egokitutako moda gustatzen zait

Modari jarraitzen diozu?

Ez naiz modaren jarraitzaile sutua, ezta tendentzia zalea ere. Nire gustuetara, nire egunerokora egokitutako moda gustatzen zait.

Zer ez da falta zure armairuan?

Praka bakeroa eta kamiseta zuria. **Dendarik denda ibiltzekoa zara ala gurago duzu Internetetik erosi?**

Interneten asko kontsumitzen dut, egia da. Baina, zerbait berezia edo desberdina erosteko, gurago dut dendara joan. Denbora eta gogoa behar dira dendarik denda ibiltzeko. Internetek edozein momentutan erosteko aukera ematen du. Berehala duzu etxean erosketa, eta arduratu barik. Bien arteko oreka behar da. Dendek egungo premietara egokitu behar dute: arropa edo bestelakoak erakusteko, sare sozialak erabiltzera animatuko nuke jendea.

Lau-hortza

Markel Sanchez Zelaia Behargina



Domingeroen alde

Badago zerbait, agian ez dakizuna oraindik zer den, saiatzen bazara lortuko duzuna horretan onena izatea. Kontua da asmatzea zertan zaren inor baino hobea. Ez. Gezurra da. Gero horrela agertzen da baten bat telebistan esnea sudurretik sartu eta begitik botatzen, zorrotada fin-fin batekin metro eta erdira dauden kandela batzuk punteria harrigarri amatzeko, esate baterako. Guinness World Record. Oso ondo, gazte. Onena zara horretan.

Badirudi zerbaitetan nabarmendu behar dugula, bikaintasuna bilatu, zerbait oso ondo egin zure izenaren alboan norbaitek idazteko "sukaldaria", "igeltseroa" edo "aktorea". Kontrakoa proposatzera nator: ez gaitze izan txarrak ezertan ere, behintzat moldatu gaitze edozertan. Moldatu gaitze etxea garbitzen, bizikletak konpontzen, masajeak ematen, kozinatzen, poesia idazten, ipurdiak garbitzen, digestio aparatua ulertzen, instalazio elektriko bat muntatzen, patata batzen, ekonomia politikoari kritika egiten, bertsoetan, bideoak egiten, etxeko hormak margotzen, antzetzten, pedagogietan, ipuinak asmatzen, atzeskuan, txoriak ezagutzen edo beste edozertan. Eta horrez gain, zeozertan ona bazara, ba hobeto.

Espezializazioa eraginkorra da kasu askotan, bai, baina bizitza ezin dugu horrela ardaztu. Izan gaitze orolariak, gauza askotan aritutakoak, kuriosoak. Izan gaitze domingeroak: domekero leku berean gauza bera egin eta bertako errege sentitu beharrean, domekero leku berri batean bazterrak nahasten dituztenak.

Domingeroek badakitelako domeka moduko egun triste bati probetxua ateratzen.

DURANGO KABILDUOSTE



Proiektu berria San Roke auzoan, erdigunetik pauso batera.

Informazioa

sukia
Zure etxean zaude Estás en tu casa

946 46 20 41
www.sukia.com